

Araitz, Atetz, Basaburua eta Imotzeko udaletan baimenak eta bestelako egoerak daudenean zerbitzu anitzetako langilea kontratatzeko zerrenda egiteko deialdia.

OINARRIAK

1.-Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da zerrenda bat egitea Araitz, Atetz, Basaburua eta Imozko udaletako zerbitzu anitzetako enpleguaren lanpostu hutsa betetzeko, baimenak eta beste egoera batzuk daudenean.

Zerrenda horrek baliorik gabe utziko du 2024ko abenduan onartutako zerrenda, goian adierazitako udalen beharrak ordezkatzeko oinarri gisa balio zuena. 1.2. Lanaldia entitate bakoitzak bere plantilla organikoan esleituta duen portzentajearen arabera izanen da. Lanaldia eta ordutegia zerbitzuaren beharretara egokituko dira beti, eta organo eskudunek noiznahi aldatu ahalko dituzte, zerbitzuaren beharrek hala eskatzen dutenean.

1.3. Lanpostuak D edo C mailari dagozkion lansariak izanen ditu, uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lansarien Behin-behineko Erregelamenduan eta deialdi honi atxikitzen zaizkion udaletan aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera, bai eta entitate bakoitzari dagozkion plantilla organikoetan ageri diren osagarriak ere.

1.4. Lanpostuaren eginkizunen artean, besteak beste, honako hauek daude:
-Udal-instalazioak ireki eta ixtea, eta alarma-, argiztapen- eta berokuntza-sistemak martxan jartzea.

-Udalaren eskumeneko ur instalazioak zaindu, berrikusi, zaindu eta mantentzea, eta anomalien berri ematea.

-Udal instalazioak eta haien sistemak zaindu, berrikusi, zaindu eta mantentzea, eta anomalien berri ematea.

-Lanak koordinatzea eta kudeatzea udako kanpainan kontratatzen diren langabetuekin.

-Udal-instalazioen garbiketa egitea.

-Hesiak, seinaleak, agertokia eta abar muntatu eta desmuntatzea.

–Garraioa-, karga- eta deskarga-lanak.

–Hainbat eremutan mantentze-lanak egitea:

- Lorezaintza: kanpoko eta barrukoa.
- Igeltserotza: konpontze-lan txikiak, adabakiak jartzea...
- Arotzeria: altzariak eta muntaiak.
- Elektrizitatea: udal-eraikinak eta kaleetako argiak.
- Iturgintza: iturgintza-, berokuntza- eta ureztatze-zirkuituak.
- Pintura: kanpoko eta barrukoa.
- Errementaritza eta soldadura: atek, euskarriak, barandak, farolak...

–Aipatutakoez gain, lanpostuak eskatzen dituen gaitasun eta ahalmen profesionalekin bat etorrira, agintzen zaizkion bestelako zereginak egitea.

–Laneko Arriskuak Prebenitzeko arauak betetzea.

–Lan-ekipoa eta -erreminta mantentzea eta ordenatzea, eta anomalia edo behar ororen berri ematea.

–Egindako jardueri buruzko txostenak egitea aldian-aldian.

–Herritarrari ematen zaion zerbitzua sustatzea eta hobetzen laguntzea. Ezarritako lan-programa eta zerbitzu-beharrak betetzeak noizean behin eta ordutegi-malgutasunaren aldetik planteatzen dituen eskakizunetara egokituz.

–Aipatutakoez gain, ezarritako helburuak lortzeko agintzen zaizkion beste eginkizun batzuk egitea, lanpostuak eskatzen dituen gaitasun eta ahalmen profesionalekin bat.

–Eta, oro har, goian azaldutako lanen antzekoak egitea, eta zerbitzua dela-eta, lanpostuarekin lotuta eta bere maila eta kategoriaren barruan esleitzen zaion beste edozein eginkizun edo zeregin.

2.–Betekizunak.

2.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, parte hartu nahi dutenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako herritartasuna izatea, Europar Batasuneko estatu bateko herritarra izatea edo Europako Batasuneko estaturen bateko herritarra izatea

Langileen zirkulazio askea aurreikusten duten Europako Erkidegoaren Nazioarteko Itunak, Espainiak berretsiak.

Espainiako nazionalitatea duten pertsonen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, bai eta Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea dutenek eta aipatutako nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan dauden estatueta nazionalitatea dutenek ere, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere parte hartu ahal izango dute, zuzenbidez bananduta ez badaude, baldin eta hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

b) Hamazortzi urte beteta izatea eta, hala dagokionean, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.

c) D edo C mailetako lanpostuetan sartzeko behar den gutxieneko titulazioa izatea, edo hori eskuratzeko moduan egotea (hori lortzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekina) eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.

d) Deialdi horri atxikitako udal bakoitzaren plantilla organikoan jasotako euskara-mailak egiaztatzen dituen titulu edo ziurtagiriren bat izatea, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren arabera, edo Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen irailaren 13ko 210/2010 Ebazpenean zerrendatutako tituluaren bat, edo ofizialki baliokidea den beste bat.

103/2017 Foru Dekretuak, Nafarroako administrazio publikoetan, haien erakunde publikoetan eta haien mendeko zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz, eskatzen den ezagutzaren berariazko proba eginez ere egiaztatu ahalko da.

e) Dagozkion eginkizunak betetzeko beharrezko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

f) Eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez izatea, eta Administrazio Publikoaren zerbitzuetik bereizia ez izatea.

g) B motako gidabaimena izatea.

2.2. Oinarri honetan jasotako betebeharrak guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko dira, eta hautapen prozedurak irauten duen bitartean ere bete beharko dira. Halaber, lanpostuaz jabetu arte indarrean egon beharko dute.

3.–Eskabideak eta aurkezteko epea.

3.1. Eskaerak aurkezteko epea.

Deialdian parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa izango da, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Eskaerak aurkezteko epea luzaezina izango da.

3.2. Eskaera aurkeztea eta formalizatzea.

Parte hartu ahal izateko eskabideak Basaburuko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, entitatearen egoitza elektronikoaren bidez. Eskabidean izangaiek adierazi beharko dute hautapen prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela, eta 2.1 oinarrian zehazten diren agiriak erantsi beharko dizkiote.

3.3. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabidearekin batera, behar bezala beteta (l. eranskina), honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Indarrean dagoen nortasun agiri nazionalaren edo pasaportearen fotokopia.

Europar Batasuneko estatuetako hautagai nazionalentzat, jatorrizko herrialdeko nortasun-agiri balioduna eta indarrean dagoena, titularraren edo pasaportearen nazionalitatea jasotzen duena.

Espainiarren ezkontideen eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako nazionalen ezkontide diren hautagaiek, haien ondorengoek eta haien ezkontideek, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak eta haien mendekoak badira, pasaportea eta egoiliar komunitarioaren familia-txartela aurkeztu beharko dituzte, Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea ez badute; bestela, aurreko atalean deskribatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

b) 2.1 oinarriko c) atalean eskatzen den titulazio akademikoaren jatorrizkoa edo fotokopia.

c) Deialdi honetara atxikitako udaletako plantila organikoetan ezartzen diren mailetako euskara probak egiteko ziurtagiri ofiziala edo eskabidea.

d) Izangaiaren B kategoriako gidabaimenaren fotokopia, gutxienez.

e) 6. oinarrian ezarritakoa aplikatzeko eta, era berean, denbora eta baliabideen egokitzapena eskatzeko, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten izangaiek hori egiaztatu beharko dute honako agiri hauetako baten kopiaren bidez:

–Organo eskudunak emandako ziurtagiria.

–Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena, ezintasun iraunkor osoagatik, absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik prestazioa jasotzeko eskubidea aitortzen duena.

Desgaitasunen bat duten izangaiek, ariketak egiteko behar diren denbora eta baliabide egokitzapenak eskatzen badituzte, eskabidean hala adierazi beharko dute, eta aparteko orri batean adierazi zer desgaitasun duten eta zer egokitzapen eskatzen zaizkien.

f) Alegatu eta lehiaketaldian baloratuko diren merezimenduen egiaztagiriak.

4.–Izangaiek onartzea eta erreklamazioak.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Basaburuko Udaleko alkateak ebazpena emanen du onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta Basaburuko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratzeko aginduko du.

4.2. Izangai baztertuek hamar egun balioduneko epea izanen dute, behin-behineko zerrenda Basaburuko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik, erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, haiek zuzentzeko.

4.3. Erreklamazioetarako epea bukatutakoan eta erreklamazioei erantzun ondotik, Basaburuko Udaleko alkateak ebazpena emanen du onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta Basaburuko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratzeko aginduko du. Ebazpen berean adieraziko da probak non, noiz eta zein ordutan hasiko diren.

Ondotik, epaimahaiak behar den garaian argitaratuko ditu gainerako ariketak egiteko iragarkiak, Basaburuko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuz.

Inor ez badago kanpoan, zuzenean onartuko da behin betiko zerrenda, eta Basaburuko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko da.

4.4. Izangaiei egotzitako arrazoiengatik baztertzen direnei ez zaizkie azterketa egiteko eskubideak itzuliko.

5.-Epaimahaia.

5.1. Epaimahaia pertsona hauek osatuko dute:

- 1.- Lehendakaria: Basaburuko Udaleko alkatea edo zinegotzia.
- 2.- Batzordekidea: Imozko Udaleko alkatea edo zinegotzia
- 3.- Batzordekidea: Basaburua edo Imozko Udaleko zerbitzu anitzetako ofiziala.
- 5.- Batzordekide-idazkaria: Basaburua eta Imozko Udaleko idazkaria.

Epaimahaia hautaprobak egin baino lehen eratu beharko da.

5.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta aritu ere, hura osatzen duten kideen gehiengo osoa bertan ez bada.

5.3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako abstentzio-arrazoiak gertatzen direnean, epaimahai kalifikatzailea osatzen dutenek abstenitu egin beharko dute, eta organo deitzaileari jakinarazi.

Era berean, izangaiek epaimahai kalifikatzailea osatzen duten pertsonak errefusatu ahal izango dituzte, aipatutako inguruabarrak gertatzen direnean.

5.4. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduz sor daitezkeen arazo guztiak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari espezialistak biltzen ahalko ditu proba guztietarako edo batzuetarako. Horiek epaimahaiari laguntza emanen diote, beren espezialitate teknikoetan aritzera mugatuz.

6.–Deialdiaren garapena.

Deialdia bi fasetan egingen da, lehiaketaldia lehenbizi eta oposizioaldia gero, oinarri hauetan zehazten den moduan.

Lehiaketa-oposizioaren gehieneko balorazioa 100 puntukoa izango da, 50 puntu lehiaketa-faseari dagozkio, 40 puntu idatzizko probaren faseari eta 10 puntu elkarrizketaren faseari.

6.1. Lehiaketa fasea.

Lehiaketaldia ez da baztergarria izanen eta gehienez ere 50 puntu lortzen ahalko dira. Oposizioaldia gainditzen duten izangaiei soilik gehituko zaie puntuazio hori.

Epaimahaiak II. eranskineko baremoaren arabera baloratuko ditu alegatutako merezimenduak.

Merezimendu guztiak agiri bidez alegatu eta frogatuko dira, eta izangaiek modu frogagarrian aurkeztu beharko dute oposizio-lehiaketan parte hartzeko eskabidea aurkezten dutenean. Horrela egiten ez badute, ez aurkeztutzat joko dira.

Nahikoa izango da dokumentazioaren kopia soilak aurkeztea. Hala ere, aurkeztutako datuak edo dokumentuak zehatzak ez badira edo faltsuak badira, dagozkion erantzukizun penal, zibil edo administratiboak eskatuko dira.

Merezimenduak baloratzean, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu arte lortutakoak baizik ez dira kontuan hartuko.

Epaimahaiak ezingo du inolaz ere ziurtzat jo alegatu ez den edo agiri bidez egiaztatu ez den merezimenduren bat dagoenik, eta ezingo du eman, atal bakoitzeko, baremoan adierazitako gehieneko puntuazioa baino puntuazio handiagoa.

Epaimahaiak noiznahi eska ditzake argibideak eta datu osagarriak lehiatzaileek alegatutako merezimenduei buruz.

Merezimenduen lehiaketako kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak Basaburuko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko ditu izangaiek lortutako behin-behineko puntuazioak, eta bost egun balioduneko epea irekiko du, argitaratu eta biharamunetik hasita, izangaiek beren eskubideei komeni zaiena alegatu ahal izan dezaten.

Behin-behineko emaitzen kontra aurkeztutako alegazioak epaimahaiak ebatzi ondoren, merezimenduen baremazioaren behin betiko emaitzak argitaratuko dira Basaburuko Udalaren egoitza elektronikoan.

6.2. Oposizio fasea.

Oposizio-fasea hasi aurretik, euskara-proba egingo zaie deialdi honetako 2.1.d oinarrian eskatzen den ezagutza agiri bidez egiaztatu ez dutenei.

Proba honetan bi ariketa egin beharko dira, idatzizkoa eta ahozkoa, deialdian eskatutako hizkuntza mailari dagokionez pertsonak duen gaitasuna edo gaitasuna neurtzeko. Proba horiek Ultzamaldeko Euskara Zerbitzuko euskara teknikariak egingen ditu, eta haien ondotik oposizioko proba berariazkoak etorriko dira. Proben berri behar bezala emango da. Probaren emaitza gai edo ez-gai izango da; gai ez diren izangaiak hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

Oposizio fasea 2026ko apirilean eta maiatzean zehar egingo da. Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean berean finkatuko dira lehenbiziko ariketa non, noiz eta zein ordutan egingen den.

Hautapen prozesuan ariketa teoriko bat egin beharko da, baztergarria izanen dena. Proba honetan 40 puntu emanen dira gehienez.

Proba hori deialdiaren III. eranskineko gai-zerrendan ageri diren gaiei buruzkoa izanen da.

Hautaprobak egiteko, ezgaitasun aitortua duten eta eskabidean hala eskatzen duten izangaientzat behar diren denbora eta baliabide egokitzapenak egingen dira, egin ahal izateko.

6.2.1. Proba teorikoa: test moduko ariketa bat egin beharko da, III. eranskineko gai-zerrendako gaiei buruz. Zenbait erantzun emanen dira, baina bakar bat hartuko da zuzentzat. Erantzun oker bakoitza ondo erantzundako baten balioaren laurden bat zigortuko da.

Ariketa honetan, gehienez ere, 40 puntu lor daitezke, eta, gainditzeko, 20 puntu lortu behar dira gutxienez. Puntuazio hori lortzen ez duten hautagaiak kanporatu egingo dira.

Epaimahaiak zehaztuko du zenbat denbora dagoen proba hori egiteko.

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingen da. Izangaiak nortasun agiri nazionala, pasaporte edo gidabaimena aldean dutela agertu beharko dute. Azterketara agertzen ez diren edo arestian aipatutako agirietako baten bidez nortasuna egiaztatzen ez duten izangaiak oposiziotik baztertuko dira.

Hautaprobak egiteko, ezgaitasun aitortua duten eta eskabidean hala eskatzen duten izangaientzat, denbora eta baliabide aldetik egiten ahal diren eta beharrezkoak diren egokitzapenak ezarriko dira.

Hautaketa-faseko proba bakoitzaren kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak egoitza elektronikoan erakutsiko ditu behin-behineko kalifikazioak, eta bost egun balioduneko epea emango die izangaiei alegazioak aurkezteko. Epaimahaiak alegazioak ebatzi ondoren, behin betiko kalifikazioak onetsiko dira. Kalifikazio horiek ere Udalaren egoitza elektronikoan jarriko dira ikusgai. Halaber, eta kasuaren arabera, probak gainditu eta baztertutakoen izenak adieraziko dira, bai eta hurrengo proba non, noiz eta non egingo den ere, gutxienez berrogeita zortzi ordu lehenago.

7.–Probak gainditzen dituztenen zerrenda.

7.1. Proben kalifikazioa amaitutakoan, epaimahaiak Basaburuko Udalaren egoitza elektronikoa argitaratuko du probak gainditu dituzten pertsonen zerrenda, guztira lortutako puntuazioaren arabera, izangai bakoitzak oposizioaldian eta lehiaketaldian lortutako kalifikazioak batuta.

7.2. Prozeduran parte hartzen duten pertsonen puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, oposizioaren ariketa teorikoa puntuaziorik handiena dutenen alde ebatziko da.

Berdinketak badirau, deialdiko lehiaketa fasean puntu gehien lortu dituen pertsonaren alde ebatziko da. Berdinketarekin jarraituz gero, zozketa bakarra egingen da, epaimahaiak erabakia har dezan.

8.–Datuen babesa.

(EB) 2016/679 Erregelamenduaren (DBEO) 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz, hautagaiei jakinarazten zaie:

–Deialdiko parte-hartzaileek emandako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Basaburuko Udala da.

–Tratamenduaren helburua da deialdi honen xede diren lanpostuak betetzeko langileak hautatzea.

–Hau da oinarri juridikoa: DBEOren 6.1.c) artikulua, tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion lege-betebehar bat betetzeko beharrezko tratamendua, eta DBEOren 6.1.b) artikulua, kontratu bat egikaritzeko beharrezkoa den tratamendua, zeinean interesduna parte baita, edo kontratu aurreko neurriak aplikatzeko, hala eskatuz gero.

–Datuak behar beste denboraz gordeko dira, zertarako biltzen diren eta deialdiaren eta datuen tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko. izango da artxiboari eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatzea (Nafarroako toki entitateetako agiriak ebaluatu eta ezabatzeko jarraibideak).

–Datuak legez aurreikusitako kasuetan jakinaraziko dira (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa), gardentasun-atarian argitaratzea barne, 5/2018 Foru Legearen 19.2.f artikulua arabera.

–Titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, aurka egiteko eta eramateko eskubideak erabil ditzakete udal-bulegoetan, datuak babesteko ordezkariaren bidez edo informazio gehiago aurkituko duten webgunearen bidez.

–Halaber, eskubidea dute erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (aepd.es), uste badute tratamendua ez datorrela bat indarrean dagoen araudiarekin.

9.-Errekurtsoak.

9.1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 112. artikuluan aipatzen diren epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio alkateari, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi eta hurrengo hilabetearen barruan.

9.2. Deialdi honen oinarrien aurka edo berau aplikatzeko egintzen aurka, baldin eta Epaimahai kalifikatzailearengandik ez badatoz, errekurtsu hauetariko bat aurkez daiteke, aukeran:

a) Berraztertzeke errekurtsua, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera eskumena duen administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 333. artikuluan ezarritakoaren arabera.

I. ERANSKINA.– ESKAERA

I. Eranskina.

II. ERANSKINA.- MEREZIMENDUEN BAREMOA

Esperientzia profesionala.

Administrazio Publiko batean, deialdiko kontratazio-zerrendaren antzeko ezaugarrietako lanpostuan egindako zerbitzu urte bakoitzeko edo horren zati proportzional bakoitzeko: 2 puntu urteko.

Atal honetan 10 puntu emanen dira gehienez.

Oharrak:

Ez dira baloratuko deialdia argitaratu ondoren egindako zerbitzuak.

Administrazio publikoek emandako ziurtagirien bidez egiaztatuko da lan egindako denbora, egindako lana eta maila adieraziz. Eta diziplinazko zehapen edo espedienterik ez bada izan.

Prestakuntza.

Lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten prestakuntza ikastaroak egiteagatik eta LHII, erdi, goi edo antzeko titulazioa izateagatik, lanpostuarekin zerikusia duten gaiei dagokienez, ondoko irizpideen araberrako puntuazioak emanen dira: –Egin beharreko lanarekin ikusteko duten eta gutxienez 10 orduko iraupena duten prestakuntza ikastaro bakoitzeko, onetsitako erakunde publikoek emanak: 1 puntu.

–Egin beharreko lanarekin ikusteko duten eta gutxienez 20 ordu eta gehienez 50 ordu irauten duten prestakuntza ikastaro bakoitzeko, erakunde publiko aitortuek emanak: 2 puntu.

–Egin beharreko lanarekin ikusteko duten eta gutxienez 50 ordu eta gehienez 100 ordu irauten duten prestakuntza ikastaro bakoitzeko, erakunde publiko aitortuek emanak: 3 puntu.

–Egin beharreko lanarekin ikusteko izanik, erakunde publiko aitortuek emandako prestakuntza ikastaro bakoitza, gutxienez 100 ordu eta gehienez 200 ordu: 4 puntu.

–Egin beharreko lanarekin ikusteko duten eta 200 ordu baino gehiago irauten duten prestakuntza ikastaro bakoitzagatik, onetsitako erakunde publikoek emanak: 5 puntu. –Lanpostuarekin zerikusia duen erdi edo goi mailako lanbide heziketako titulu bakoitzeko, erakunde aitortuek emana: 10 puntu.

-C motako gidabaimena edukitzeagatik (kamioi karneta). 1 puntu. E motako gidabaimena izanez gero (atoirako gidabaimena), puntu 1. –Gizon eta emakumeen

arteko berdintasunari buruzko gaietan prestakuntza izateagatik. 10 ordu edo gehiagoko ikastaroengatik puntu 1. 10 ordu baino gutxiagoko ikastaroengatik, 0,5 puntu.

Atal honetan gehienez ere 5 puntu lor daitezke.

III. ERANSKINA.-GAI-ZERRENDA

1. Araitz, Atetz, Basaburua eta Imotz: kokapen geografikoa, azalera, biztanleria, tokiak, parajeak, errekek, fauna, landaretza. Udalaren ondasun, instalazio, eraikin eta zerbitzuen ezaugarriak eta antolamendua. Udalen osaera.
2. Araitz, Atetz, Basaburua eta Imozko Udalen Ordenantzak:
 - 2.1. Kiroldagien erabilera eta funtzionamendua arautzen duen erregelamendua.
 - 2.2. Araitz, Atetz, Basaburua eta Imozko Udaletan animaliak edukitzeari buruzko ordenantza.
3. Uraren ziklo integralari buruzko kontzeptu orokorrak. Kloroa kontrolatzeko sistema, ur-deposituen mantentze-lanak. Ur-deposituak kontserbatzea eta mantentzea.
4. Laneko segurtasun- eta osasun-arauei eta oztopo arkitektonikoei buruzko oinarrizko jakintzak. Segurtasuna makinak eta erremintak erabiltzean.
5. Igeltzerotzako kontzeptu orokorrak. Erremintak. Materialak. Zolaketa eta alikatatzea. Enkofratuak eta hormak jasotzea. Obrak kontserbatzea eta mantentzea. Obra arin eta ertaineko makinak erabiltzea.
6. Zurgintzako oinarrizko eragiketak, adibidez: ate-leihoak doitzea, sarrailak, bonbinak eta pertsianak eta antzekoak.
7. Oinarrizko argiztapen-zirkuituak: etengailuak, kommutadoreak, entxufe-oinarriak, lanparak, pizarazgailuak eta erreaktantziak. Eraikinetako banaketa-koadroak, potentzia kontrolatzeko etengailua, magneto termikoa eta diferentziala.
8. Iturgintzako eta berokuntzako instalazioen mantentze-lanak: sanitarioak, txorrotak, zisternak, sifoiak, berokuntza-zirkuituak, airea betetzea eta purgatzea zirkuituetan, galdara-geletan eta haien elementu berezietan. Instalazio termikoen energia-eraginkortasuna hobetzeko sistemak ezagutzea (eguzki-energia termikoa, energia geotermikoa, biomasa).
9. Lorezaintzako eta mendiko produktuak, makinak eta erremintak ezagutzea, maneiatzea eta haien mantentze-lanak egitea (sasi-garbitzeko makina, belarra mozteko makina, heskaiak moztekoa, aizkora, motozerra, garaierako inausketarako plataforma jasotzailea, traktorea, atzerakako hondeamakina). Fitosanitarioak aplikatzea.

10. Lorezaintzako eta basogintzako ezagutzak izatea.
11. Ezagutza orokorra eta hondakinen tratamendua.
12. Aritmetikako eta geometriako oinarrizko ezagutzak.

Santos Etxegia Oronoz alkatea

Basaburuan, 2026ko martxoaren 6an